

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Liburu-tabernak Antzinako Erroman

ERROMA, K.A. 50. URTEA. Tito Ponponio Atiko, idazle eta historialaria, Zizeronen obren argitaratzaile eskusibo bihurtu zen eta, horrenbestez, Erromako editore nagusietakoa izan zen. Baina ez bakarra. Atikok Quirinale mendian zuen argitalerxea. Sosio anaiek, aldiz, Janoren arkutik gertu zuten negozioa, eta Horazioren obrak kaleratu zituzten. Tito Livioaren *Historia* monumentala, berriz, Doro greziarrak editatu zuen, eta Kintilianoaren lanak, Trifonek.

Egileek ez zuten gehienetan obra eskuz idazten; testua kopiatazailei diktatu ohi zieten. Lehen kopia hori irakurketa publikoetan aurkeztu ohi zuten eta, sarritan, aurkezpen horien arrakastaren arabera erabakitzen zuten editoreek lana argitaratu ala ez. Atikok hainbat kopiagile eta zuzentzaile zituen tailerrean, eta berak diktatzen omen zituen edukiak. Aste gutxian dozenaka ale kaleratzea lortzen zuen erromatar argitaratzaileek; milaka aleko argitaraldiak ez ziren posible izan inprenta asmatu artean.

Egileek gutxitan lortzen zuten irabazirik. Etekinak editoreentzat izan ohi ziren, baina kostuak ere beren gain hartzen zituzten. Eta ez ziren makalak. Papiroa, esaterako, oso garestia zen; eta bizkarrean lotutako pergaminozko liburuak ez ziren IV. mendera arte nagusitu. Kostuak berdintzeko, tailer gehienek kalera ematen zuen liburu-denda edo *taberna libraria* delakoa zuten, kopiak zuzenean publikoari saltzeko.

Ez zegoen egile eskubiderik. *Oratio publicata libera est*, argitaratutakoa guztiona dela, alegia. Eta, besteak beste, Simako hizlaria horren kexu zen, baliabideak –idazten zekiten esklabuak– zituztenek



Ponpeiako Misterioen Villako freskoa. Haurra papiro bat irakurtzen ari da, eta alboko emakumeak ere papiro bilkaria du eskuan.

kopia “piratak” egin zitzaizketelako. Hala ere, kopia horien kalitatea kaxkarra izan ohi zen, materialari zein edukiari zegokienez.

Nobela piperdunak nahiz abenturazkoak eta zenbait antzezlan ziren Erromako *best seller*-ak, eta, horien atzetik, diskurtso erretorikoak, historia liburuak eta poema satirikoak ziren salduenak.

Julio Zesarrek eta Augustok Erromari liburutegi handi bat emateko ahaleginak egin zituzten arren, Inperioko hiriburuak ez zuen sekula Alexandriakoa edo Pergamokoa bezalako liburutegi bikainik izan. Baina editoreen lanari esker, ehunka liburutegi pribatu sortu ziren hirian.



## Arrastoak

### Izurri beltzaren ADN aurtitu dute



PIETER BRUEGHEL

YERSINIA PESTIS izeneko bakterioak eragin zuen XIV. mendean izurri beltz edo bubonikoa, Europako biztanleen herena hil zuena. Alemaniako, AEBetako eta Kanadako hainbat unibertsitatek, elkarlanean, bakterio horren ADN aurtitu dute berriki.

Jakina, aurkikuntzak ez du eraginik izango XIV. mendean eragin zituen 50 milioi hildakoetan, baina etorkizuneari zenbait pandemia aurreikusten lagun dezake, egun munduan dauden izurri piztaldi guztiek bakterio hori bera baitute jatorri.